

**GAZTEON AHOTSA ENTZUN: "3+2"-ari EZ**

Aurrekoetan ere adierazi dugun bezala, azken urte hauetan jende guztia ikasleoi buruz hitz egiten ari da, baina inork gutxi galdetu digu edota gure hitza kontuan hartu.

2013an LOMCE legea onartzearen aurka geundela salatu genuen eta oraingoan ere unibertsitate esparruko ikasketak berrantolatzeke sistemaren alde ez gaudela adierazi nahi dugu.

Espainiako Ministro Kontseiluan otsailaren 2ko 43/2015 Errege Dekretua onartu zen non, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak, unibertsitate ikasketa ofizialen antolaketa zehazten duenak aldaketak jasotzen dituen. Gauzak horrela, unibertsitateek 3 urteko graduak eta 2 urteko masterrak eskaintzeko aukera ematen duen.

Aldaketa hau, Hezkuntza Ministerioak hartutako erabakia eta ezarritako beste erreforma bat da. Berrito ere hezkuntza komunitateko eragileak ez dira kontuan hartu, edozein aldaketen aurrean hartu beharko litzatekeen lehenengo neurria dela ulertuta.

Egoera hau dela eta, Euskadiko Hezkuntza arloko ikasle, elkarte eta kontseiluek indarrak batu egin dituzte gazteon hezkuntza eskubideak defendatzeko eta arlo formaleko elkarren arteko proiektu eta eztabaidak garatzeko.

Hauek dira neurri honen kontrako zergatiak puntuz puntu zerrendatuta eta azalduta:

- **Ebaluazio falta:** indarrean dagoen Bolonia plana oraindik ez da aztertu, hartutako neurriaren eraginkortasuna edo eraginkortasun eza. Hori dela eta ez da ulergarria beste neurri berri bat martxan jarri nahi izatea aurrekoaren emaitzak ezagutu gabe. Aurreko hezkuntza planaren indarrak eta ahuleziak neurtu behar direla uste dugu edozein neurri hartu baino lehen.
- **Prezioen igotzea:** master eta graduen arteko prezioen aldea zein den jakinda, aldaketa honekin are garestiagoa da masterra egitea gradua bera baino.
- **Parekotasun falta:** 3+2 neurria ezartzea edo ez unibertsitateen esku utzita, unibertsitate eta ikasketen arteko ezberdintasunak sortuko ditu. Horrela, ikasketa berdina iraupen ezberdina izan dezake, unibertsitatearen arabera.
- **3 hezkuntza planen elkarbizitza/nahastea:** gaur egun aurreko planeko lizentziaturak eta diplomaturak Boloniako 240 kredituko graduekin batera daude eta aldaketa honekin, 180 kredituko graduekin ere nahastuko lirateke. Guztira hiru hezkuntza plan ezberdin egongo lirateke batera.



- **Arazoak laneraterako ordutan:** epe laburrean hiru hezkuntza plan ezberdin aldi berean egoteak, ikasleen artean aldeak sortzeaz gain, laneraterakoan arazoak sor ditzake.
- **Formakuntza orokorraren murriztea:** gradu berrietako ikasleek 60 kredituetako formakuntza gutxiago izango lukete, guztira urtebeteko ikasketa gutxiago formakuntza orokorraren murriztearekin batera.
- **Titulazioen berrantolaketa:** ANECA-ren ebaluazio berri bat titulazioen berrantolaketak eraginda. Honek, goi mailako ikasketen garestiagotzea ekarriko luke zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen hezkuntzarako

Hau dela eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseilutik hurrengo eskatzen dugu:

- **“3+2” erreforma bertan behera uztea:** aurreko hezkuntza planen eraginkortasuna neurtu gabe hartu nahi den neurri bat delako, hezkuntza eragile zein gazteen ahotsa kontuan hartu gabe.
- **Ikasleen ahotsa entzuna izatea:** ikasleoi eragiten gaituzten gaietan gure iritzia emateko aukera izatea. Erabakiak hartu baino lehen gazteen proposamenak eta kezkek entzuteko bideak zabaltzea.
- **Master eta graduen prezioen parekatzea:** masterren kredituen prezioa gutxitzea eta graduenera parekatzea.

Behin eta berriro errepikatu dugun bezala, hezkuntza politikak adostasunean eraiki behar dira. Gazteak ikasleak gara; hezkuntza prozesuko subjektuak eta protagonista.

Askok pentsatzen duten bezala badirudi gazteok ez daukagula ezer esateko, baina hori ez da egia. Gazteok gure eskubideak defendatzen ditugu, bidegabekeriei aurre egiten diegu eta horiek ezabatzeko lan egiten dugu.